

**Alaitz Telletxea:** «Alaitz eta Maider taldean genbiltzanean ez nuen sentitzen lanera joaten nintzenik. Niretzat plazerra zen jotzera joatea, eta beti horrela sentitu izan nintzen. Horrek ez du esan nahi beti ondo pasatu nuenik, denok izaten ditugu tristealdiak eta horrelako garaiak; baina, aldi berean, terapia bat ere bazen, deskonektatu egiten nuen. Ez dut lan moduan bizi izan... «Gero, zortea eduki dugu, etxean izugarritzko konfiantza eduki dutelako gurekin. Orain pentsatzen jarrita, 16 urterekin nola ibiltzen ginen batetik bestera... Ez genuen gidabaimenik. Iparralde-tik-eta gure bila etortzen ziren; Ezpeletara, Sarara-eta eramaten gintuzten, eta han lo egiten genuen. Gurasoek ardura gudan jarri zuten, eta asko eskertzen diet jarrera».

(Gipuzkoako Hitza, 2012-06-01)

**Ander Beldarrain. Soinu jole oriotarra, sortu berri duten Loretxu Berbena Belarra taldeaz:** «Loretxu izena jarri nahi genion hasiera batean, baina buelta batzuk ematen hasi ginen, eta berbena taldea denez, oriotarren artean oso erabilia den berbena belarra hitza jartzea bururatu zitzaigun; herritarrei grazia handia egin die izenak berak... «Eskarmentu handia dute taldekide askok musika munduan, baina rock musika jo dute gehienbat, eta berbena giroa ez zuten gehiegi ezagutzen. Hala ere, oholtza gainera askotan igo izan direla nabari da, baita entseatzeko eta abestiak lantzerako garaian ere... «Oso zoriontsu nago, asko gustatzen baitzait berbena-erromeria giroa. Orain arte, trikitixa txapelketetan hartu izan dut parte, baina azken urtean nekatu egin naiz».

(Urola Kostako Hitza, 2012-07-06)

**Gema Sistiaga:** «Mentxu eta biok Oiartzunen hasi ginen. Jakin nahi genuen, lehengo garaietan alde hartan trikitixa girorik egon ote zen. Nik, adibidez, Pasai Donibanen, gramola bidez bakarrik ezagutu nuen trikitixa. Igandero ipintzen zuten. Uste dut Zumarragako trikitixaren diskoa zela... «Aurrenekoz Oiartzungo Ergoien auzoko festetan jo nuen jendaurrean, San Juanetan, 25-26 urte bete direla esango nuke. Mentxurekin izan zen. Errepertorio murrizta geneukan. Moldatu genituen Kaxianoren pare bat, eta bi horiek behin eta berriz jotzen genituen, jendeak eskatzen zigulako».

(Diario Vasco, 1012-07-15)

### TRIKIDANTZ TALDEAK EGIN DU NAFARROA OINEZEKO AURTENGO KANTUA

«Kolare&hitz» leloarekin dator aurten Nafarroa Oinez. Kolorea eta hitza nahasita dakartza aurtengo leloak, era berean, kolore aniztasuna aldarrikatuta. Lehiaketa txiki baten ondoren, Trikidantz taldearen doinua aukeratu dute Nafarroako Ikastolen festari musika ipintzeko.

San Fermin ikastolako ikasle izandako Julio Soto bertsolariaren hitzetatik abiatuta, doinu alaiak sortu ditu Trikidantz taldeak. Hizkuntzek mundua kolore anitzez margotzen ahal dutela dio kantuak eta ikastolen koloreak euskararenak direla. Dantzatzeko moduko doinu alaiak izango du, beraz, Zizur Txikiko San Fermin ikastolak antolatu duen Nafarroa Oinez festak.

### TRIKITIXA ELKARTEA FACEBOOKEN

Sare sozialen garrantziaz eta hedapenez jabetuta, Euskal Herriko Trikitixa Elkartek orrialdea sortu du Facebooken. Orain arte, Altxaporrri boletinarekin batera, web orrialdearen bitartez zabaldu izan dugu Elkartearen informazioa. Orain tresna berri hau ere badugu. Elkartearen proiektuen berri edota trikitixa munduari lotutakoak zabalteko. Atsegin gaitzazu eta trikitixa munduko azken berrien jakinaren gainean egongo zara!



2012ko iraila · 46

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHETE Allemendi 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · trikitixa@trikitixa.net



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

## Irakaskuntzaren ingurukoak landuko dira Trikitixaren X. Jardunaldietan

**Hamargarren edizioa dute jada Inpernuko Poza Trikitixaren Jardunaldiek. Azken urteotan bezala, Donostiako Euskal Jaien egitarauaren barnean ospatuko ditugu, irailaren lehendabiziko astean. Aurten, gainera, eraikin historiko batetik besterako jauzia egingo dugu: Udal Liburutegiko sotoari agur esan eta Victoria Eugenia Antzokiko Sala Club aretora egingo dugu aldaketa.**

Trikitixa zabaldu izanaren ezinbesteko gakoa transmisioa izan denez, irakaskuntza ardatz hartuta datoz aurtengo jardunaldiak. Transmisioaren soka horri helduta, soinu txikia eta panderoa irakasteko moduak sakon aztertuko ditugu. Urte gutxian asko landutako eremua da, izan ere, trikitixaren irakaskuntza. Ez dira hainbeste urte, baserriko ganbaran aurrez-aurre jarrita erakusten hasi zirenetik. Ondoren, soinuarentzat propio egokitutako zenbaki bidezko metodoak ere sortu ziren eta, jakina, beste edozein musika tresnarekin bezala, ezin da ahaztu solfeoa.

Irakasteko metodo hauek guztiak aztertu eta alderatuko ditugu. Sistema bakoitzaren abantailak, hutsuneak, berezitasunak... azaltzen ahaleginduko gara Inpernuko Poza Trikitixaren X. Jardunaldietan. Horretarako, mahai-inguru eta saio praktikoa bana prestatu ditugu.


### IRAILAK 6, OSTEGUNA: “IRAKASKUNTZA LANTZEN” MAHAI INGURUA

Lau trikitixa irakasle jarriko ditugu mahai beraren bueltan. Bakoitzak nola ikasi zuen, egun nola irakasten duen, metodo bakoitzari ikusten dizkion onurak, errepertorioa, ikaslearen profila... hamaika ikuspegitik aztertuko dugu zertan den irakaskuntza soinu txiki eta panderoaren munduan.

#### Parte hartzaileak:

- Agurtzane Elustondo
- Iker Goenaga
- Julie Mary
- Juan Tapia

Moderatzailea: Oihane Egurtza.



### IRAILAK 7, OSTIRALA: “BELARRIAK SOINU” SAIO PRAKTIKOA

Joseba Tapiak eskainiko du aurten jardunaldietako saio praktikoa. Bezperan metodoen gainean luze eta zabal hitzegingo denez, hitzetatik ekintzetara pasako gara saio praktikoaekin. Ganbaratik akademiarako bidean, proposamen praktikoa egingo du Joseba Tapiak.

**NON:** Donostian. Victoria Eugenia Antzokiko SALA CLUB aretoan.

**NOIZ:** irailak 6 eta 7, arratsaldeko 19:00tan.

Aurten, gainera, jardunaldiei bukaera ezin borobilagoa emango diegu. Irailaren 7an, ostiralarekin, saio praktikoa bukatutakoan, “Geure Kolkotik” diskoaren aurkezpen-kontertua egingo da Donostiako Alde Zaharrean bertan. Boletinen barrualdean topatuko duzue emanaldi honen inguruko informazioa.



## Gozategiren kantu arrakastatsuenen bilduma, taldearen hogeigarren urtebetetzean

Hogei urte dira Gozategi anai-arrebak (Asier eta Ainhoa) eta Iñigo Goikoetxea elkarrekin jotzen hasi zirela. Irratian egin zieten aurreneko elkarrizketan, zera galdetu zioten Asierri: etorkizunera begira, zer zuen amets. "10-15 urte barru, talde izaten jarraitzea" erantzun zuen Asierrek. Eta ez zebilen oker. Hamar, hamabost eta hogei urte ere joan dira hiru gaztetxok plazatan elkarrekin jotzen hasi zirenetik. Urteurren borobilaren harira, Asier Gozategirekin hitz egin du Altxaporrak.

"Bagenekien noizbait etorriko zela tankera honetako bilduma bat. Lehen ere bagenuen asmoa akustikoren bat, zuzeneko edo halako disko bereziren bat egitekoa... eta azkenean hogeigarren urteurrenarekin egokitu da kantu arrakastatsuenen bilduma egitea". **Gozategi 1992-2012 All Stars** izenarekin bataiatu dute lana eta hamahiru kantu bildu dituzte bertan. Horretxek eman die lanik handiena; zerrenda adosteak. "Zalantzarik gabe sartu behar zirenen zerrenda egiten hasi eta, 25-27 kanta bildu zitzaizkigun... orduan lanak! Ezin denak sartu! Eta egia esan, penarekin geratu gara asko kendu beharraz. 13 horien artean, Korrikakoa kenduta, gainerako guztiak gure diskoetan argitaratuta daude... eta orain, berriz grabatu ditugu".

Ainhoa aspaldi utzi zuen taldea, baina diskoan ez da bere ahotsik falta. "Abestiren batzutan kantatu du eta, gainerakoak, gure ahotsetarako moldatu ditugu". Izan ere, Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxearekin batera, honokoek osatzen dute egun taldea: Imanol Goikoetxea gitarrarekin (Iñigoren anaia), David Gorospe baterian, eta Joseba Aparicio eta Iñigo Perona haizezko instrumentuekin. "Aurreko diskoan dagoeneko sartu genituen haizezko instrumentuak. Hasiera batean, kontzertu handietara eramatea bakarrik pentsatu genuen... baina azkenean, emanaldi guztietara etortzen dira".

Mikel Irazoki aritu da produktore lanetan eta, gauzak ongi, Durangoko Azokarako kalean izango da disko berria. Hala ere, aperitiboa mahai gainean du nahi duenak: *Kalanbreak* kantuaren bertsio berritua, entzungai dago gozategi.com atarian. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle talde batek kantu honekin berarekin egindako bideoak ere ikusgai dago taldeak *Facebooken* duen orrialdean.

## Imuntzo eta beloki zuzenean, Agerre teatroaren "zu ere on kixote?" antzezlanean



Agerre Teatroak 2009an taularatu zuen On Kixoteri buruzko aurreneko lana. Orain berriz, buru-belarri ari dira, udazkenean estreinatuko duten "Zu ere On Kixote?" prestatzen; sail bereko laugarren eta azkena izango den obra. Oraingo honetan, Imuntzo eta Beloki gonbidatu dituzte On Kixoteren euskal bertsioa musikaz janzteko.

Izan ere, *Teatroa, trikitixa eta herria* da lanaren azpitu-lua. Eleuterio Jauregi *Belokik* Altxaporruri azaldu dionez, azpitu-luan bertan dago mamiaren pista. "Antzezlan honetan hiru elementu daude bizi bizirik. Bi aktore, bi trikitilari eta herria. Hau zer den? Bada, emanaldia eskaintzen den herrian dagoenaren arabera, elementu horiek ere sartuko ditugu saltsan. Izan daiteke koral bat, dantza bikote bat, bertsolariak, arte plastikoak...". Antzezlan emango den herri bakoitzean, gainera, eskualdeko historiaren ingurukoak ere sartuko dituzte gidioan.

Lan honetarako prestatutako musikaz galdetuta, "denetik" izango dela dio *Belokik*; "euskal doinuetan oinarritutakoak gehien bat, baina Castillara ere jo dugu zerbaiten bila... eta gure barrena hustutzen saiatuko da Maite Agirre, gure sormena eta espresioa astinduz". Baina bada gehiago ere! "Musika jartzetik aparte, aktore lanetan ere zertxobait esperimentatuko" dutela azaldu digu *Belokik*.

Hernanin emango dute estrainekoz urriaren 16an. Hurrengo hitzordua, Hendaian, urriaren 20an. Eta hala, Elorrio, Amurrio, Zaldibia, Donostia... hamarren bat emanaldi lotuta dauzkate udazkenearako.

## Soinujolearen semea ere antzerkian



Bernardo Atxagaren eleberria antzerkirako egokitu du Tanntaka Teatroa konpainiak, Arriaga, Victoria Eugenia eta Principal antzokiekin elkarlanean. Fernando Bernuesek zuzenduta, aktore ezagunak izango dira taula gainean: Aitor Beltran, Joseba Apaolaza, Patxo Telleria... eta soinuua joz, Iñaki Salvador arituko da. Eszenografia ere ikusgarria izango dela aurreratu diote Altxaporruri: dozenaka soinu bilduko dituzte taula gainera. "Soinujolearen semea" Bilboko Arriagan emango dute estreinekoz, urriaren 18an.



## Geure kolkotik 2012 diskoa, aurki kalean...

disco BERRIAK

Pieza berrien sorkuntza bultzatzeko helburuz, "Geure Kolkotik" bildumako disko berria prestatu du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Hirugarren alea du jada bildumak eta, aurrekoen gisan, bost soinu jolek, hiruna pieza sortu dituzte lan berri honetarako.

**Ruben Isasi:** Perkusioarekin Iñigo Olazabal laguntzaile duela dator diskora soinu jole getxotarra. Fandango bereziak sortu ditu, ezohikoak. Horieta batek, Balkanetako doinuak gogorazten ditu.

**Oskar Estanga:** Aitziber arreba eta Iker Telleria ondoan dituela grabatu ditu Oskarrek hiru piezak. Tartean da, iazko ekainean Durangon ospatu zen Euskal Herriko Trikitixa Egunerako prestatutako kantua; *Tiliñori* eskainitako kalejira.

**Arkaitz Allur:** Idurre Arriola pandero jolearekin batera entzungo dugu Arkaitz Allur lan honetan, fandango, bals eta mejikana banarekin. Egiteke utzitako gauzez eta kontseju merkeez abestu dute kutsu mejikarra duen doinuan.



**Monik Valor:** Piezako laguntzaile bana aukeratu du Monik Valorrek. Hala, Eider Iraola panderoarekin, Adrian Larrañaga kajoiarekin eta Edurne Munarriz baterian izan ditu laguntzaile.

**Xabi Arakama:** Hainbat proiektutan taldekide izan dituen Unai Frantsesenarekin eta Iban Larrebururekin grabatu ditu piezak Xabi Arakamak. Tartean da, *ez dek Jo soinurik* izeneko trikitixa; txikitari gurasoak errietan aritzen zitzaizkioneko.



## ...eta aurkezpen emanaldi bana, Donostian eta Zarautzen

Aurreko bi aleekin ez bezala, "Geure Kolkotik" bildumako hirugarren lana jendaurrean aurkeztuko da, Donostian aurrea eta Zarautzen ondoren. Orain arte, "Faborez" bildumako lanak aurkeztu izan dira erromeriatan eta aurten "Geure Kolkotik" diskoan jasotako uzta erakutsiko duten emanaldiak antolatuko ditugu.

**DONOSTIAN: TRINITATE enparantzan. Irailak 7, ostirala, 22:30tan.**

**ZARAUTZEN: Malekoian. Irailak 16, igandea, 18:00tan.**

## Nazioarteko Trikitixa Jaialdia, aurten, Getxon bakarrik

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak hamargarrenez antolatu zuen iaz Nazioarteko Trikitixa Jaialdia. 2002an Donostiako Kursaalaren egin zen aurreneko hartatik hasi eta, Victoria Eugenia, Tolosako Leidor eta Andoaingo Basteron barrena eraman dugu jaialdia, bertako eta atzerriko soinu joleak, taula gainean elkarrekin jarrita. Horixe zen, izan ere, Elkartearen asmoa: munduan barrena soinu diatonikoa jotzeko hamaika molde badiela erakustea. Hamar urteotan, helburua bete dela irizita, zikloa ixtea erabaki du Elkarteak. Aurten, beraz, ez da Nazioarteko Trikitixa Jaialdirik antolatuko.

Bizkaiko Elkarteak ordea, eutsi egingo dio egitasmoari eta, aurten, bederatzigarrenez antolatuko dute Nazioarteko Trikitixa Jaialdia. Getxoko Andres Isasi Musika Eskolan izango da hitzordua. Partaideak zahazteke dauden arren, Euskal Herriko hiru talde izango dira eta atzeritik bi.

**NOIZ:** Azaroak 24, larunbata, 19:00etan

**NON:** Andres Isasi Musika Eskola (Areeta-Getxo)



## Hamaika ikusteko! URTE ASKOAN, ANTON!

San Antonio egunez jaio zen eta, garaiko tradizioak agintzen zuen gisan, santuaren izenarekin bataiatu zuten. Antonio Agirre Beristain da bera. Guk dakigula, Euskal Herriko soinu jole zaharrena da: ehun urte bete zituen ekainaren 13an. Zaratamokoa jaiotzez, Arrigorriagan bizi da eta mendeurren ongi merezi zuen moduan, omenaldi bana egin zioten bi herriotan. "Behatzak huts egin" hasi zaizkiola kontatzen du berak, ez dagoela "lehen bezain bizkor", baina txukun jotzen ditu oraindik ere makina bat pieza.

2009an elkarrizketa egin zion Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak "Hauspo Kontari" sailerako eta orduko pasarteak ikusgai dituzue interneten, [www.trikimailua.com/bideoak](http://www.trikimailua.com/bideoak) atarian.